

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	PROZESU FARMAZEUTIKO ETA ANTZEKOETAKO ARRISKUEN PREBENTZIOA, SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK (Zeharkakoa)	Iraupena	60
		Espezifikoa	
Kodea	UF0716		
Lanbide-arloa	KIMIKA		
Lanbide-eremua	Farmakokimika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Farmaziako produktuen eta antzekoen prestaketa	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Farmaziako produktuak eta antzekoak ekoizteko instalazioak, zerbitzuak eta ekipoak (Zeharkakoa)	Iraupena	160
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Farmaziako produktuen eta antzekoen ekoizpeneko bero- eta esterilizazio-tratamenduak (Zeharkakoa)	Iraupena	50
	Farmaziako produktuen eta antzekoen ekoizpenean, fluidoak erabiltzea (Zeharkakoa)		50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0050_2: PROZESU FARMAZEUTIKORAKO ETA ANTZEKOETARAKO EKIPOAK ETA INSTALAZIOAK PRESTATZEA ETA ZERBITZU OSAGARRIAK ERABILTZEA gaitasun-ataleko LB5 eta LB6 lanbide-burutzapenekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Laneko sistematika aplikatzea fabrikazio zuzeneko, segurtasuneko eta ingurumeneko arauak betez.

EI1.1 Forma farmazeutikoen prozesu desberdinei dagozkien fabrikazio zuzeneko, segurtasuneko eta ingurumeneko arauak definitzea.

EI1.2 Lan-eremuetako ordena- eta garbitasun-arauak aplikatzea.

- Lanpostua garbi eta ordenan mantentzea, ekipoetan eta osagarrietan garbiketa-teknikak aplikatuz.
- Erabiltzen diren garbiketa-prozedurak, materialak eta agenteak deskribatzea.
- Etiketatze egokia erabiliz, garbiketa-prozesua behar bezala egiten dela erregistratzea.

EI1.3 fabrikazio-gidaliburu baten atalak identifikatzea eta betetzea.

EI1.4 Laneko protokolo normalizatu baten (prozeduren) atalak eta motak definitzea.

EI1.5 Erregistroak eta oharrak dagozkion araudiaren arabera egitea.

EI1.6 Identifikazio-sistematika erabiltzea.

A2: Prozesuaren anomalien aurrean erantzuna aukeratzea.

EI2.1 Fabrikazio-prozesuetan gerta daitezkeen anomaliak eta desbideratzeak ezagutzea eta haien berri ematea.

EI2.2 Larrialdi-egoeretako erantzun-sistemak zerrendatzea.

EI2.3 Prozesua berriro kontrolpean jartzeko beharrezkoak diren ekintzak identifikatzea.

EI2.4 Galerak eta/edo kalteak minimizatzea.

EI2.5 Ekintza guztiak eta dagozkien eraginak erregistratzea.

A3: Larrialdi-egoeren aurrean ekintza zuzentzaileak aplikatzea.

EI3.1 Larrialdi-egoeren aurrean kontrola hartzeko baliabideak definitzea.

EI3.2 Egoera behar bezala jakinarazi dela ziurtatzea, dagozkion neurriak hartzeko.

EI3.3 Larrialdiko planak zerrendatzea.

EI3.4 Ezarritako larrialdi-planak definitzea.

A4: Ekoizpen-eremuaren sarreran segurtasun- eta higiene-irizpideei jarraituz jardutea, eta produktuen segurtasun-orriak erabiltzea.

EI4.1 Eragiketak egiteko norbera babesteko behar diren jantziak eta ekipoak erabiltzea, eta prozesuaren eta/edo produktuaren arrisku kimikoekin erlazionatzea.

EI4.2 Segurtasun-orrien eta norbera babesteko baliabideen helburua deskribatzea.

EI4.3 Norbera babesteko ekipo-motak zerrendatzea.

EI4.4 Norbera babesteko ekipoak ondo hautatzea eta erabiltzea.

EI4.5 Norbera babesteko ekipoak egoera onean daudela kontrolatzea.

EI4.6 Erabiliko diren produktuak identifikatzea.

EI4.7 Erabili beharreko produktuen segurtasun-orriak erabiltzea.

Edukiak

1. Prozesuko garbiketa eta ordena: eragiketak eta kontzeptua

- Prozesuetako ordena.
- Eremuko eta tresnen garbiketa.
- Kutsadura gurutzatuak saihestea.
- Ekipoen eta eremuaren etiketatze-eragiketak.

2. Larrialdi-egoeretan nola jokatu

- Gorabeherak eta desbideratzea.
- Gorabeherak eta desbideratzeak jakinaraztea.
- Larrialdi-planak.
- Jarduera- eta ebakuazio-prozedurak.
- Istripua izan duen edo gaixo dagoen batekin jarduteko prozedura.

3. Farmaziako produktuen eta antzekoen ekoizpeneko segurtasuneko eta ingurumeneko arauak

- Segurtasuneko, osasuneko eta ingurumeneko arauak.
- Lan Arriskuak Prebenitzeko Legea.
- Segurtasun-seinaleztapena eta katigamenduak
- Alarma- eta babes-sistemak.
- Zenbait su-mota prebenitzeko, detektatzeko eta itzaltzeko metodoak.

4. Farmaziako produktuen eta antzekoen ekoizpenean indarrean dagoen araudiaren araberako lan-sistematika

- Ekipo, eremu eta zonetako mantentze-lanak eta egokitzapen-lanak egiten diren unean laneko arropa janztea.
- Norbera babesteko elementuen erabilera.
- Mantentze-, garbiketa- eta egokitzapen-lanak egiten diren bitartean gune sailkatuetara sartzeko araudiak.
- Gidaliburuak, erregistro-liburuak, etiketak eta abar betetzea.
- Laneko prozedura normalizatuak eta mantentze-, garbiketa- eta egokitzapen-lanen sekuentzia erabiltzea.
- Kargak eskuz maneiatzea.

5. Farmaziako produktuak eta antzekoak zuzen fabrikatzeko arauen araberako jarduera-sistematika.

- Produktuen segurtasun-orriak.
- Hondakinen bilketa eta bereizketa selektiboa. Isurketen kontrola.
- Arrisku-faktoreak. Sentsibilizazioak.
- Lanpostuaren ingurumen-faktoreak.
- Makinen, ekipoen eta instalazioen segurtasun-gailuak.
- Kargak maneiatzea.
- Prozesuan gertatutako gorabeheren aurrean jarduteko modua ezagutzea.

6. Prozesuko anomaliak

- Anomalia- eta desbideratze-motak.
- Ekintza zuzentzaileak.
- Ekintzen eta efektuen erregistroa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-erlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Farmaziako produktuen eta antzekoen prestaketa.